

VILLA PILAR
D MAILA

ITSASARGI PASEALEKUA 37



Ramon Kortazar, 1915.

Deskribapena

XX. mendearen bigarren hamarkadan zehar Itsasargi pasealekuaren hasieran eraikitako sei villetako bat da. Guztiek osatu multzoak paisaia aldetiko balioa du, batez ere errepidearen hasieran duten kokagunearen ezaugarriengatik. Etxe horiek lorategi-terraza gainean daude, murrizko fatxadak eta harri hormazko portadak dituztela erremate. Arku batean lerrotatzen dira, bihurgunearen gidalerroari jarraikiz, goragoko kota batean; horrela, funikularraren trenbideak eta Torre Satrustegiko lorategiek mugatutako lorategiak sortzen dira. Estilo neoeuskalduneko ale apala da, itxura batean pisukako bizitzak egiteko altxatua; bolumen kubikoa du, eta beheko solairuaz eta goiko hiru solairuz osatu profila. Gaur egun, morteroz estalitako fatxadek ezkutatu egiten dute eraikuntzako apaindura-elementu oro. Partzela berean bi solairuko beste etxe bat dago, akabera harri-hormaz emandako bolumen trinko eta estalki lau batez; eraikin osagarria da.

D mailako babes erregimen espezifikoa

- 1.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: ez.
- 2.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: eraikin bietako harrizko elementuak, zurezko elementuak eta estalkia.
- 3.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: jasodurarik gabe.
- 4.- Nahitaezko lehengoratzek: ez.